

MURGILDU ZAITEZ ANTROPOLOGIAN!

- **Jakintza adarra:** Gizarte eta Lege Zientziak
- **Campus:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
- **Gradua/k:**
Gizarte Antropologia
- **Garapen-lekua (helbidea):** San Telmo Museoa Zuloaga Plaza 1, Donostia

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

"Murgildu zaituz Antropologian!" izenburua duen jarduera hau Batxilergoko, Lanbide Heziketako, Goi Mailako Prestakuntza-Zikloetako, Arte-Irakaskuntzetako eta Kirol-Irakaskuntzetako ikasleei zuzenduta dago, funtsean, etortzen diren gehien-gehienak Batxilergoko kurtsoetatik datoz. Bere helburu nagusia hau da litzateke: aipatutako ikaslego honi gizarte antropologiarako oinarritzko hurbilpen bat eskaintzea. Horrela, gizarte zientzietako diziplina hau zabaltzeko asmoz, jarduera teorikoa eta praktikoa eskaintzen da. Bertan, gizarte antropologiari dagozkion oinarritzko nozio batzuk ezagutzeaz gain, antropologiaren aplikazioa gauzatzen duen zentro batetara bisita egin da. Kasu honetan, Donostiako San Telmo museoa ezagutzea proposatu da, ikasleei espazio honek gizarte antropologiarekin duen harremana erakusteko asmoarekin.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

Aurretik esandakoa kontutan harturik, jarduera honen helburu zehatzak ondorengoak dira:

- Gure testuinguruan hain errotua dagoen diziplinari, gizarte antropologiari alegia, oinarritzko hurbilpen bat eskaintzea.
- Antropologiaren funtsezko ezaugarriak, zeregina, intereseko guneak eta planteamendu metodologikoei buruzko informazioa azaltzea jardueran parte hartuko duen ikasleei. Gainera, UPV/EHUk eskaintzen duen gizarte antropologiako graduaren inguruan oinarritzko informazioa emango zaie bertaratzen direnei.

Antropologiaren arlo aplikatuarekin zerikusia duen gune bat bisitatzeko aukera ematea (Donostiako San Telmo Museoa). Beti ere ikasleek gizarte antropologiak duen profil profesionala edo praktikoa ezagutzeko asmoz.

Honako gaiak eta edukiak lantzen dira:

- Zer da antropologia? Diziplinaren jatorriak. Espezifikotasuna eta beste gizarte zientzietatik loturak. UPV/EHUko Gizarte Antropologia graduaren aurkezpena.
- Kulturaren kontzeptua. Definizioak. Kultura: ikasia, partekatua, sinbolikoa. Unibertsalitatea, orokortasuna eta berezitasuna. Etnozentrismoa, erlatibismo kulturala eta giza eskubideak.
- Zer aztertzen du antropologiak? Azpi-diziplinak eta azterketarako eremu nagusiak: Zertzeuk arazo kezkatu eta kezkatzen dituzte antropologoak?
- Antropologia aplikatua: Jatorriak eta ezaugarriak. Garapen eremuak eta egungo egoera. Dilema etikoak.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Proposatutako jarduera bi ekintzen bidez burutuko da. Hasieran gizarte antropologiari loturiko oinarrizko nozio teoriko batzuk aurkeztuko zaizkie parte hartzaileei. Honen bitartez, ikasleei gizarte antropologiaren inguruko oinarrizko hurbilpen eskaini nahi zaie. Hori dela eta, antropologiaren definizioa, bere ezaugarri nagusiak, bere funtsezko lan eremuak eta ohiko metodoak azalduko dira laburki. Gainera, UPV/EHUk eskaintzen duen Gizarte Antropologiako graduaren oinarrizko ezaugarriak aurkeztuko dira.

Ondoren, gizarte antropologiari loturiko aplikazio zentro bat bisitatuko dute ikasleek, esan den moduan, Donostiako San Telmo museoak aukeratu da. Bi taldetan banatuta egingo da bisita. Bertan gauzatuko dira jardunaldiaren inguruko ekintza guztiak, horrela ikasleek museoak gizarte antropologiarekin duen lotura ikusi ahal dutelarik (ez bakarrik edukiei dagokionez, baita ere, museoaren diseinua, antolaketa eta kudeaketa dagokionez).

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Orduetgia	Plazak
2025-01-23	Euskara	Goizez	10:30 – 14:00	40
